



2002/08/02ko prentsa-oharra

**INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)****2002ko ekaina**

## **EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA %2,8 JAITSI ZEN 2002KO EKAINEAN**

**Lehen sei hilekoko tasa metatua %-0,5era iritsi da, aurreko urteko aldi beraren aldean**

2002ko ekainean, %2,8 jaitsi zen Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek eskainitako datuen arabera. *Petrolioia fintzea* (%-24,5) eta, neurri txikiago batean, *makineria* (%-9,3) atalen jaitsiera handiek markatu dute Industri Produkzioaren Indize Orokorren joera aurtengo ekainean. Datu horiekin, urteko lehenengo sei hilabeteetako tasa metatuak %0,5en beherapena lortu du, aurreko urteko aldi beraren aldean, lanegunen balio homogeneotan.

2002ko ekainean, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *mea metalezkoak eta ez-metalezkoak* (%28,2), *zurgintza* (%7,7), *papera, argitalpena eta grafikoak* (%6,9), *garraio-materiala* (%6,2), *ehungintza eta jantzigintza* (%4,5) eta *kimika-industria* (%4,0).

Urte arteko hazkunde-tasa nabarmen negatiboak izan dituzten sektoreen artean, arestian aipatuak agertzen dira: *petrolioia fintzea* (%-24,5) eta *makineria* (%-9,3). Halaber, aldakuntza negatiboak izan dituzte ekainean honako sektore hauek: *larruaren eta oinetakoan industria* (%-9,3), *metalgintza eta metalezko gaiak* (%-5,9) eta *elikagai-industria* (%-5,6), besteak beste.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2002ko ekainean intentsitate handiagoz jaitsi dira *ekipo-ondasunak* (%-5,6), eta haien atzetik *kontsumo-ondasunak* (%-2,6) eta, kopuru txikiagoan, *bitarteko ondasunak* (%-0,4).

Seihilekoko balantzean, %2,6 igo da *kontsumo-ondasunen* indizea, eta jaitsi, aldiz, *ekipo-ondasunei* (%-1,3) eta *bitarteko ondasunei* (%-0,5) dagozkienak.

Industri Produkzioaren Indize Orokorren jaitsiera, ekainean, intentsitate desberdinekoa izan da hiru herrialdeetan: Araba (%-1,7), Gipuzkoa (%-2,3) eta Bizkaia (%-3,8).


Taula: 2002ko EKAINA. Hazkunde-tasa (%). Industri Produkzioaren Indizea. Euskal AE.

Azalpena	Aurreko urteko hil beraren aldean	Datu zuzenduak, aurreko urteko hil beraren aldean (*)	2001eko urtarril-ekaineko tasa metatua(*)	2002ko urtarril-ekaineko tasa metatua(*)
<b>Indize orokorra: Euskal AE</b>	<b>-6,7</b>	<b>-2,8</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,5</b>
Araba	-5,9	-1,7	-1,2	0,7
Bizkaia	-7,4	-3,8	-0,9	-0,7
Gipuzkoa	-6,2	-2,3	0,9	-0,8
<b>Indizeak sektore-zatiduraka</b>				
<b>- Euskal AE:</b>				
Ateratze-industriak	22,1	28,2	10,1	0,4
Manufaktura-industria	-7,3	-3,2	-0,4	-0,8
Energia elektrikoa, gasa eta ura	-0,6	-0,2	0,3	3,2
<b>Indizeak helburu ekonomikoka - Euskal AE:</b>				
Bitarteko ondasunak	-4,0	-0,4	1,3	-0,5
Kontsumo-ondasunak	-6,5	-2,6	-1,8	2,6
Inbertsio-ondasunak	-10,1	-5,6	-2,4	-1,3

(\*) Lanegunez zuzendua.

**Iturria: Eustat**

Argibide gehiagorako:

 <b>Eustat</b>	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz Tel: 945-01 75 00 Fax: 945-01 75 01 E-mail: <a href="mailto:eustat@eustat.es">eustat@eustat.es</a>
	<b>Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso</b> Tel: 945-01 75 14 Fax: 945-01 75 01 <b>Prentsa-oharrak Interneten: <a href="http://www.eustat.es">www.eustat.es</a></b>